



GIPUZKOAKO TXAPELKETA
GIZONEZKO 1. LURRALDEKOA

LEHIAKETEN ARAUDIA

I.- JOKATZEKO DATAK

Lehiaketa hau denboraldi ofizialaren barruan egingo da, Ohiko Batzarrak onartutako egutegiaren arabera.

Euskal Federazioaren Txapelketara igotzeko faserako, federazio horrek horretarako ezarritako egutegia eta arauak hartuko dira kontuan.

II.- TALDE PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan 2022-2023 denboraldian parte hartuko duten taldeak honako **hamabi talde** hauek izango dira:

- **Ikusi 2022-23 Gipuzkoako Txapelketan aritzeko kirol eskubideak dituzten taldeen ERANSKINA.**

III.- PARTE HARTZEKO IRIZPIDEAK UKO EGINEZ GERO

Talde batek parte hartzeari garaiz eta behar bezala uko egiten badio, edo inskripzioa ezarritako epean egiten ez badu, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan haren lekua nork bete behar duen zehazteko:

1. Kategoria automatikoki galdu zuen taldea. Bi talde edo gehiagok eskubide berberak badituzte, lehenik eta behin txapelketan lortutako sailkapen-ordena hartuko da kontuan eta Partida eta Lehiaketan Erregelamenduak adierazitako irizpideen arabera erabakiko da.
2. Aurreikusi gabeko kasuetan, FGBMko Kirol Diziplinako Batzordeak ebaziko du.

IV.- LEHIAKETA FORMULA

Lehiaketa hau ondorengo formula bidez jokatu da:

- Itzuli bikoitzeko Liga, talde bakarrean.

Euskal Ligarako igoera, FVBMren Batzarrak erabakiko duenaren arabera jokatu da.

V.- PARTIDEN DATA ETA ORDUTEGIAK

Txapelketako partida guztiak Egutegi Ofizialean aurreikusitako egunetan egingo dira, ezinbesteko arrazoiengatik edo Diziplina Batzordearen erabakiz beste egun batean egin beharrekoak izan ezik.

Partidek programazio bat eta balizko aldaketak izango dituzte, bai ordutegiei dagokienez, bai datari dagokienez, lehiaketako **Erregelamendu Orokorrean (3.5)** adierazitako araudiaren arabera.

Diziplina Batzordea arduratuko da arau hau betetzeaz eta halakorik ezean, aurreikusitako zigorak aplikatzeaz; **(3.10) atalean** adierazitakoaren arabera.

VI.- PARTE HARTZEN DUTEN JOKALARIAK

Lurralde-eremuko senior mailako gizonezkoen lehiaketetan, senior adinean dauden gizonezko jokalariek **(2004ra arte jaiotakoak)** parte hartu ahal izango dute, behar bezala tramitatutako lizentzia badute, bai eta klub eta/edo filial bereko gazte-jokalariek ere; baldin eta Lurralde Federazio honek tramitatutako lizentzia badute, horri buruz ezarritako araudiarekin bat etorritz.

Lehiaketa ofizialaren hasieran, senior taldeek jokalaria-kupo nagusi bat izan beharko dute, **gutxienez hamabi (12) eta gehienez hogeita hiru (23)**.

Gizonezko kategoria Senior honetan, gehienez hamasei (16) jokalaria inskribatu ahal izango dira aktan, eta nahitaezkoa izango da hamar (10) jokalaria inskribatzea eta bertan egotea. Kopuru txikiago batek Lehiaketen Erregelamenduan zehaztutako zigorra dakar.

LIZENTZIEN KUPO NAGUSIA

Gipuzkoako txapelketa hasi aurretik talde batek gutxienez hamabi (12) lizentzia izan beharko ditu nahitaez, eta gehieneko kopurua hogeita hiru (23) izango da, kontutan hartuta gutxienez hiru jokalaria **(2000, 2001, 2002,2003 eta 2004)** urteetan jaiotakoak izan beharko dutela eta fitxa beraiei dagokien taldean izatea beharrezkoa dela.

LIZENTZIA GEHIGARRIEN KUPOA:

- Gainera, taldeek, guztira **2000, 2001, 2002,2003 eta 2004an** jaiotako zortzi jokalaria senior izan ahal dituzte, ez dira izendunak izan behar, beheko senior mailako klub bereko taldeetatik etorriak, eta neurketa kopuru mugagabeen lerrokatu ahal izango dira.
- Zortzi jokalaria senior horietatik bi **1999**ra arte jaiotako jokalaria senior nazionalak izan daitezke, klub bereko edo/eta filial bereko beheagoko mailako talde seniorretakoak. Jokalaria horiek ez dira izendunak izango eta jardunaldi kopuru mugagabeen lerrokatuak izan daitezke.
- Era berean, **2000ik 2004ra** bitartean jaiotako **zortzi jokalaria nazional senior horietatik 4 jubenil jokalaria izan ahalko dira (2005-06 urteetan jaiotakoak eta ez dira izendunak izan behar)**, klub bereko edo/eta filial bereko jubenil talde batekoak badira. Jokalaria horiek aktan behar bezala inskribatu eta seniorren arteko norgehiagoka batean parte hartu ahal izateko, **lerrokatze hori baimentzen duen federazio honetako Diziiplina Batzordearen akta aurkeztu beharko diete arbitroei**. Beren klubeko edo/eta filialeko senior taldearekin parte hartzen duten jokalaria jubenilek ez dute jubenil izaera galduko eta **jardunaldi bakoitzeko bi partida jokatu ahal izango dituzte, eguna edozein dela ere**.
- Gipuzkoako txapelketetako taldeen osaera bai kupo nagusiarena, bai kupo gehigarriarena Senior txapelketan, lehiaketa amaitu baino **hiru aste lehenago** itxiko da.

Torneo eta kopak:

Talde guztiek, **torneo eta kopetan, baimenduta dauden jubenil mailako zortzi (8) jokalaria lerrokatu ahal izango dituzte**, ez dira izendunak izango eta jardunaldi bakoitzeko bi partidatan lerrokatu ahal izango dira, eguna edozein dela ere.

BALDINTZA OROKORRAK:

- Kupo gehigarriko jokalaria, kirol-jardunaldi bakoitzeko, bi partidetan baino ezin izango dira lerrokatuak izan.
- Kategoria beheragoko kupo gehigarria duten senior jokalaria ez dira inoiz ordeztuak izango.
- Arbitroek, partidaren aktan, nahitaez jaso behar dute norgehiagokako kategoria baino beheragoko jokalarien izen-abizenak. Jubenilen kasuan berriz, **baita lerrotze horretarako baimena jasotako Federazio honetako Diziplina Batzordearen aktaz-zenbakia ere.**
- Atal hau kontuan hartuta, klub bereko beheragoko mailako taldeetatik datozen eta senior gizonetzkoetan parte har dezaketen jokalarien **"kupo gehigarria"** honako hau izango da:

1999ra ARTE JAOTAKO SENIORRAK (2 gehienez)	2000,2001,2002,2003 eta 2004 URTEAN JAOTAKO SENIORRAK (8 gehienez)	JOKALARI JUBENILAK 2005-2006 (4 gehienez)	GUZTIRA
0	4	4	8
0	5	3	8
0	6	2	8
0	7	1	8
0	8	0	8
1	3	4	8
1	4	3	8
1	5	2	8
1	6	1	8
1	7	0	8
2	2	4	8
2	3	3	8
2	4	2	8
2	5	1	8
2	6	0	8

- **Kategoria honetan ez dira onartzen lehiaketa berean klub bereko bi talde edo gehiago.**
- **Ondorioz, klub batek Lurraldeko Bigarren Mailan ari den talderen bat badu, ezin izango du mailaz igotzeko aukerarik izan, salbu eta 1. mailako Lurraldeko taldea Euskadiko Txapelketara igotzen bada edo 1. Mailako lurraldeko taldea kategoriaz jeitsiko balitz.**

VII.- ENTRENATZAILE ETA DELEGATUAK

Talde guztiek Aktan izena ematera behartuak daude eta entrenatzaile edo entrenatzailearen laguntzaile batek egon behar du partida bakoitzean (ONARTUTAKO TITULAZIOAREKIN).

Talde batek Foru Aldundiak izapidetutako lizentzia bat erabiltzen duenean, eskatutako titulazioa duela bermatu behar du; halakorik ezean, lerrokatze bidegabea izango du.

Halaber, nahitaez inskribatu behar da aktan **eta bertan egon beharko du ZELAIEKO DELEGATU batek**, antolatzea dagokion partida bakoitzean.

Betebehar horiek ez betetzea FGBM Alderdien eta Lehiaketen Erregelamenduaren arabera zigortuko da.

VIII.- XEDAPEN OSAGARRIAK

Gipuzkoako gizonezkoen Lehen Lurralde Ligaren arau espezifiko hauek **GIPUZKOAKO FEDERAZIOAREN LEHIAKETEI BURUZKO ERREGELAMENDU OROKORREAN** garatutakoarekin osatzen dira, **DAGOKION OHIKO BATZARREAN** onartu zirelarik.

ERANSKINA

Kirol-eskubideak dituzten taldeak:

- 1 ORDIZIA SIGLO XX Plater Prestatuak**
- 2 ORMAIZTEGI KE**
- 3 EGIA KOSKO TABERNA**
- 4 SAIEKO KE**
- 5 UROLA LAZTIMENDI**
- 6 SORALUCE BKE**
- 7 ILCAPO HONDARRIBIA**
- 8 TXINGUDI GOIBAR**
- 9 MUNTARPE**
- 10 CDB LEIZARAN ERNIO INMOBILIARIA**
- 11 ZKE ZARAUTZ**
- 12 MUGARRI - INGOU ARRASATE**